

Arrantzaleari mugak jartzen

Deia, 1977-07-23.

Itsasoa, muga gabeko zerbait bezala ikusi izan du gizonak.

Askatasuna, honela sumatu dugu askotan.

Batez ere, honetxegatik: bide esturik ez duelako, egiten direnak berez borratzen direlako, eta berriz ere munduko bide guziak irekiak geratzen direlako.

Hau poetaren itsasoa da behar bada, baina poetarena ere ba da itsasoa.

Eta arrantzaleak ere ba du bere poeta bihotz-kolkoan.

Poesiatik harmetara pasatzen bagara, piratekin topo egiten dugu; lehenengo begi-bakarrekin eta gaurko katalejudun beste hoiekin.

Bai, itsasoak izan ditu mendez-mende mugak eta nagusiak. Espainia, Ingalterra, Japoa, Ipar-Amerika, Sobietarrak, denak ibili izan dira kanoi-bidez itsasoen askatasun-nagusitza eta menperatze baten bila; gehienetan, aberastasun egarri.

Gu, berriz, kanoi gabeko nagusi pobreak izan gara.

Balea eta bakallua izan ziren gure bide eta ibil-bide nagusi; baina gaur arte, euskaldunek sarebidez, eta bela, arraun, bapore eta motorrez mugitutako ontzietan herriarentzat hainbat janari karriatu izan dute.

Guk, lapurtu, gutxi.

Behar bada, lapurtzeko indar gehiegi izan ez dugulako; baina, pirata bat edo beste kenduta, lana egin dugu batez ere itsasoan. Hala, itsasoa, gurea ere bada.

Arrantzaleentzat, itsasoa mundu oso eta erdi da.

Eta ez bakarrik irabaz-bide, eta janari-iturri delako.

Ba da askatasun arazo bat ere.

Itsasoa askatasunerako gorde behar dugu. Hemen behar luke gizonak, beste tokietan galdu dituenak ikusita, gizonaren erakunde bidez, internazionalki, askatasun zabala zaindu. Ba du itsasoak, berez, lanak eta nekeak ezartzen dizkion hainbat, eta nahiko, muga eta traba. Teknikaren laguntza bidez dela, gizonak gero eta urrunago eta seguruago behar luke itsasoan joan eta ibili. Piraten, kanoien eta mugakeriaren bildurrik gabe.

Itsasoa mugatzen hastea pekatu astuna da.

Lehen itsas-bazterra gordetzen bazen, gero hiru mila izan ziren; ondoren, hamar mila, berrogei-ta-hamar eta azkenik berrehun. Laster, baratzetan bezala, alambradak jarriko dizkigute itsasoan!

Orduan, gizonarenak egin du.